BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

4812

EBAZPENA, 2013ko urriaren 30ekoa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren EAEko Barneko Arroei dagozkien uholde-arriskuaren mapetako sakonerari buruzko informazioa jendaurrean jartzeko aldia hasten dela iragartzen duena.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86. artikuluari eta urriaren 23ko 2007/60/EE Zuzentaraua estatuko legerian txertatzen duen uztailaren 9ko Uholde-kalteraginen ebaluazio eta kudeaketaren 903/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluari jarraituz, biak barne, Uraren Euskal Agentziak honako agirien gaineko kontsulta publikoa egiteko aldia irekitzen dela iragartzen du: Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren EAEko Barneko Arroei dagozkien Uholde-arriskuaren mapetako sakonerari buruzko informazioa.

Horretarako, dokumentazioa iragarki hau argitaratu eta biharamunean kontsultatu ahal izango da, hilabete batez, Uraren Euskal Agentziaren web orrian: www.uragentzia.euskadi.net

Epea amaitu eta gero, dokumentu honetan zein urriaren 23an bukatu den Uholde-arrisku eta Kalteraginen Mapen kontsulta publikoan aurkeztutako alegazioak batera aztertuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 30a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.